



Ekhi Lambert


Ekhi Lambert Irulegiko konpositore eta kantautorea da. Influentzia desberdinak juntatuz (herrikoia, pop, musika inpresionista, filmetako musika), interpretazio eta idazkera musikalaren norberako ikusmoldea aldarrikatzen du. Konposizio eta moldaketak beste artista batzuentzat ere egin izan ditu, baita orkestra (*Baigorriko Gaiteroak* eta *Et Incarnatus, Oiasso Kamerata, Gaitistaneke Orkestra*) eta dantza konpanientzat (*Alabena* konpania, *Arrola* taldea). Kantari eta gitarrista gisa, hainbat proiektutan ere dabil musikan (*Haira, Altxalili Show !, Izakiak* ikusgarria, *Laura Etchegoyen*). 2018an, Seitan talde polifonikoarekin diskoa ateratzen du. Baionako Maurice Ravel Kontserbatorioan bere saria eskuratu ondoren, *Hautura*, Donostiako Elkar Estudioan grabaturiko lehen bakarkako diskoa plazaratzen du 2019ko abenduan.



Inbasioak

Bere bakarkako bigarren diskoarentzat, Ekhi Lambertek hainbat musikarirekin obra oparo, zorrotz eta anbiziotsua sinatzen du. Inbasioak diska anitza iragartzen da, bazter, xoko eta pasabidez betea. Pop orkestralaren ildoan, musikari desberdinen laguntzarekin gauzatu izan du lan hori : hauek dira Oiasso Kameratako sokak, Joseba Irazoki, Félix Buff, Oihan Oliarj-Ines, Ludovic Leriche... Diskoa 2023ko primaderan grabatua izan da *Garate* (Kaki Arkarazo) eta *Shorebreaker* (Johannes Buff) estudioetan. Taula gainean, kantagintza eta poesiari lehenetsua emanez, Ekhi Lambertek seikote edota bikote moduan aurkezten dizkigu bere kantu berriak. Lehen partituretatik azken grabaketa sesioak arte, amets batek arrarokeriak bizikide egiten dituen gisan, Ekhi Lambertek atmosfera elegante eta epiko baten jostea lortu du. Musika orkestral horren erroetatik at, askatasun espazio handiak utzi izan zaizkie musikariei. Hastapen batean lan bakartia zena kolektiboa bilakatu da, nolazpait inbaditua. Orkestrak gailur magnetikoak igaiten dituen ere, sinfoniak ahots bakartiaren oihartzuna xumeki segitzen du, olerki labur batzuen musikatzekotan.

Musikariak



Oiasso Kamerata

Oiasso Kamerata Irungo hari orkestra bat da. Bere ibilbidean kamerata edota beste esperientzia musikalak eskaini izan ditu herrialde ezberdinetan. Horrela, honako programak aurkeztu ditu: *Egitarau Latinoa, Viaggio Musicale, God save the strings !, Con aire de tango* Marina Beheretche biolinistaren laguntzarekin, eta *Gerra eta Bakea* errusiar konpositoreen musikaren adibide. Euskal musikaren arloan, Valentín Larrearen musika interpretatzeko erronkari heldu dio, haren harizko obra ezagutzera emanez.



Joseba Irazoki

Joseba Irazoki kantari eta gitarra jole nafartarra da, unibertso soniko izugarri aberatsa proposatzen duena. Diskografia zabala du, ia 20 disko kaleratuta. Hainbat kolaborazio ere egin izan ditu beste batzuen lanetan. Folk, rocka, psikodelia eta tresnen esperimentazioan datza bere jardun sailkaezina. *Atom Rhumba* taldeko kidea izan da, eta besteak beste, *Duncan Dhu, Mikel Erentxun* eta *Nacho Vegas*-ekin jo izan du. *Etzeko Uza* taldearen kidea da, Pettiren banda.

Félix Buff

Euskal Herriko bateria-jole paregabea, bi disko atera izan ditu bakarlarri gisa *Rüdiger* izenpean. 2013 eta 2022 artean hogei ta hamar bat disko grabatzen ditu bateria-jole gisa hainbat label independente (*El Segell- Primavera sound, Acuarela*) edo nagusietan (*Warner music group*), produktore ezagunekin lan eginez (*Burke Reid, Peter Kember, Paco Loco...*). *Willis Drummond, Petit Fantôme, Botibol, Rafel Berrio, Joseba Irazoki, Joseba B. Lenoir* edo *Atom Rhumba*-rekin kontzertuak emaiten jarraitzen du.



Vincent Mougel

Jatorriz Lorrenako haran industrial batekoa, Vincent-ek pop disko zenbaitzu argitaratu ditu *Kidsaredead* izenpean, batez ere "*the Other Side of Town*" (2014), *Botanical House* label japonésaren pean. Azken hamar urteetan, bere multi-instrumentista gaitasunak besteen zerbitzura baliatu izan ditu : *Herman Dune, Emmanuelle Parrenin, Fitness Forever, Halo Maud, Juliette Armanet, Mathieu Boogaerts, les Innocents*. 2020an, bi dokumental sailen musika idazten du Pompidou Zentroa eta Alsaziar Museoarentzat.

Oihan Oliarj-Ines

Oihan Oliarj-Ines basu-jole, kantari, konpositore eta produktore xiberutarra da. 2017an, "concept album" proiektu anbiziotsu bat eraman zuen : *Oihaneko Zuhainetan*, xiberutar kantu tradizionala moldaketa modernoekin nahasiz, jazz, rock eta pop-aren artean ibiliz. Oihan Oliarj-Ines-ek disko ainitz sinatu ditu, bai konpositore, moldatzaile, eta bai produktore gisa. Estilo desberdinetako hainbat proiektuetan dabil basu, kontrabasu eta kantuan : *Titanic Bombe Gas, Laura Etchegoyhen, Tender Tapes, Berzingue* edota *Bas(h)oan*.



Yoan Aroztegui

Yoan Aroztegui gaitasun ainitzeko musikaria da. Perkusio klasikoetan formakuntza ukantik, musika estilo ezberdinak esploratzen ditu izan piano edo bateriaren bidez. Dituen influentzia ezberdinek haren proiektuak aberasten dituzte, izan jazz laukote, country talde edo orkestra sinfoniko profesional bat. Berriki, Yoanek haren kreatibitatea adierazi du « *ONI* » deitutako ikusentzunezko ikusgarria sortuz. DJ gisa parte hartzen du, marimba jole bat segituz, zuzenean kontrolaturiko argiekin eginiko show batean.

Kontaktua

Ekhi Lambert
+33 (0) 652 21 51 26 - ekhi.lamb@gmail.com

